

Soinu-tresna batzuk Euskal Herri musikan

(Some instruments in Basque popular music)

Beltran, Juan Mari
Eusko Ikaskuntza
Miramar Jauregia - Miraconcha, 48
20007 Donostia

Alboka: Albokaren aurkezpen orokorra. Tre snaren zatiak, afinazioa, amasketa eta emisioaren teknika. Jtzeako erak: mordente en erabilerara, noten pikatua, funtzio tonalak eta erritmo-jokoak. Azken berrikuntzak albokak egite rakoan, jotze ko erak, funtzioa eta erreper torioa. Txalaparta: Aldae rak Euskal Herrian (tre sna eta interpre tazio erak). Lane ko erritmoetatik, lane ko erritmo jokoetatik eta lan tresnez egindako joaldietatik musikara: Borra-jotzea, Idaurrak-trailua, ote-jotzea, kirikoketa, ttinbilin-ttanbalan, toberak, txalaparta.

Giltza-Hitzak: Alboka. Txalaparta. Euskal Herriko herri musika. Soinu-tre sna. Erritmoa.

Alboka: Presentación general de la alboka: Partes del instrumento, afinación, técnica de respiración y emisión. Formas de ejecución: utilización de mordentes, "picado de notas, funciones tonales, juegos polifónicos y juegos rítmicos. Últimas novedades en la construcción, formas de ejecución, función y repertorio. Txalaparta: variantes en el País Vasco (instrumento y formas de interpretación). De los ritmos de trabajo, los juegos rítmicos durante el trabajo y los toques con herramientas de trabajo a la música: Borra-jotzea, Idaurrak-trailua, ote-jotzea, kirikoketa, ttinbilin-ttanbalan, toberak, txalaparta.

Palabras Clave: Alboka. Txalaparta. Música popular vasca. Instrumento. Ritmo.

Alboka: Présentation générale de la alboka: Parties de l'instrument, accordement, technique de respiration et émission. Formes d'exécution: utilisation de mordants, "staccato", fonctions tonales, jeux polyphoniques et jeux rythmiques. Dernières nouveautés dans la construction, formes d'exécution, fonction et répertoire. Txalaparta: Variantes dans le Pays Basque (instrument et formes d'interprétation). Des rythmes de travail, les jeux rythmiques durant le travail et les coups avec des outils de travail à la musique: Borra-jotzea, Idaurrak-trailua, ote-jotzea, kirikoketa, ttinbilin-ttanbalan, toberak, txalaparta.

Mots Clés: Alboka. Txalaparta. Musique populaire basque. Instrument. Rythme.

ALBOKA

– Aurkezpen orokorra

Klarinete bikoitza bat da. Bere tutuen egitura bereziak (5 eta 3 zulo) joko harmonikoak egiteko aukera ematen ditu. Jotzeko arnasketa teknika berezia erabiltzen da, etengabe haizea botatzen (albokari zaharrek “haizeari buelta emanez” esaten dute), arnasketa diafragmatikoa eginez, hots iraunkorra emanez xirolarru baten gisa.

Errepertorioa bereziki fandango-jota, arin arin-porrue, eta martxaz osatzen da. Nahiz eta doinu ezagunak eta jakinak jo, albokariak jotzerakoan interpretatzeko joera librean izan dute eta bakoitzak bere estilo eta gustuko ukitua ematen zion, horregatik gaur doinu bakoitzeko hamaika bariante ezagutzen dugu. Albokaren musika tradizionala bere eskalaren sei notekin egiten da (la-fa#). Panderoak laguntzen du dantza horietan eritmoa markatzen eta doinu gehienek badute koplak kantatzeko zati berezi bat.

– Soinu-tresnaren zatiak eta bakoitzaren funtzioa: fitak, tutuak, ahokadura, kanpaia, uztarria eta katea.

Albokaren zatiak eta bakoitzaren zeregina:

1. Fitak. Bi ditu albokak. Gutxi gorabehera 6 cm luze eta 7'5 mm lodiko kanabera. Honek duen begiaren kanpoaldetik moztzen da, mutur hori itxia eta bestea irekia utzirik. Mutur itxi horretatik 6 mm-ra trabeska ebaketa bat egin eta hautsi ez dadin kontu handiz, labanarekin kanabera-tira bat (bibratu behar duen fita) ebaketa egin dugun alde horretatik altxatzen da. Bere mihia bibrazioaren eraginez sortzen da hotsa. Fita bakoitza, albokak dituen bi kanaberetako batean sartzen da, haren luzapen bezala.
2. Tutuak-Kanaberak. Gutxi gorabehera 13 zmk luze eta 1eko lodierako bi ditu albokak. Tonu-aldaketarako ezkerrekoak (fita aldetik begiraturaz) 4-5 mm. diametroko bost zulo ditu eta eskuinaldekoak hiru.
3. Ahokadura-Adar txikia. Ahoskatzearen zeregina du. Kanaberen puntak eta uztarriaren muturra behealdetik sartzen zaizkio eta bere barruan gelditzen diren bi fitak babes-ten ditu. Jotzeko ezpainak bere kontra jartzen dira.

Gipuzkoako ekialdean eta Nafarroako Urbasa aldean, uztarriaren zurezko zati beretik osatzen da zurezko adar txiki gisako zatia. Uztarria, kanaberak eta adar txikiaren artean gelditzen diren tarte ireki horiek argizariarekin ixten dira haizea gal ez dezan.

4. Kanpaia-Adar handia. Haizezko beste soinu-tresna askok haize-irteeran duten kanpaia

bezala, albokak ere soinua handiagotzeko adar handia du. Askotan, goialdeko alboetan belarri gisako zuloak izaten ditu. Gehienetan adarraren irteerako ertzaren buelta osoan zerra hortzen moduko bukaera izaten dute.

Alboka zahar batzuetan, adar txikia eta handia apaindurik daude grabatutako marrazki geometrikoekin.

5. Uztarria. Zurezko erdizirkularra izaten da eta bera da albokaren euskarria. Zati guztiak lotzen ditu eta berak gorpuzten ditu. Heldulekua ere uztarria da. Askotan, albokariak uztarria lantzen eta apaintzen saiatzen dira, tailatzen eta barrutik ere forma desberdinak ematen. Batzuetan apaintzeko uztarriaren bi aldeetan letoizko burua duten iltzeak sartzen dituzte.
6. Katea. Alboka zaharretan adar handia estu-estu doiturik uztarriaren atzeko muturrean sartzen zen eta bukatutakoan albokariak soinu-tresna gordetzeko adar handia askatu egiten zuten. Jotzean askatzeko arriskua zegoen, eta lumeraino eror ez zedin, uztarria eta adar handia lotzen zuten katea ipintzen zitzaion.

– Afinazioa: bi tutuak batera ongi afinatu behar dira unisonoak eta zati polifonikoak modu egokian eman ahal izateko.

– Jotzeko erak eta joerak:

Amasa buelta emateko teknika: Alboka jotzerakoan, haizea botatzeko teknika berezia behar da, etengabe bota behar da, hotsa iraunkorra emanez, kornamusa edo “xirolarru”ak egiten duen bezala. Baina albokak ez du haize zaku edo poltsarik eta albokariak sudurretik haizea hartzen duen bitartean jarraitu behar du haizea botatzen amasketa teknika berezi hori erabiliz.

Mordenteen erabilera: segidan nota bera errepikatzen denean nota bakoitza “pikatzeko” edo markatzeko, eritmoa markatzeko, funtzio tonak emateko.

– Bi tutuen bitartez egiten diren joko polifonikoak. Gipuzkoako albokariaren joerak (Zegamako Gorrotxategitarak), Bizkaiko albokariarenak (Leon Bilbao, Txilibrin).

– Joko erritmikoak: sinkopa, errepertorio tradizionalan konpas barruan ematen diren azentuazio aldaketak.

Azken garaietako ekarpenak:

Soinu-tresna bera.

Joera berriak: modo nagusi eta minorrean jotzea, errepertorio berria (adaptazioak eta pieza berriak), polifonia joera berriak.

TXALAPARTA

– Aurkezpen orokorra: Lan erritmoetatik, lan egitean egiten diren joko eritmikoetara, lan-tresnekin egiten diren “musika” saioretara eta hauetatik txalapartaren musikara: Borra-jotzea, Idaurrak-trailua, ote-jotzea, kirrikoketa, ttinbilin-ttanbalan, toberak, txalaparta

Ohitura, musika egiteko era edo soinu-tresna hau izen eta itxura ezberdinekin agertzen da gure herri kulturaren. Beti festa giroan eta gehienetan auzolanean egindako lanen bukaerako ospakizunetan. Bi izaten dira joleak. Hasteko batek oinarritzko eritmoa markatuko du eta besteak aurrekoak utzitako hutsunetan sartuko ditu bere kolpeak hasierako eritmoa desegitea saiatzen. Bien artean egiten dute musika. Tokian tokiko jole bakoitzak bere izendapena hartzen du betetzen duen funtzio eritmikoren arabera, halako bikoteak osatuz: “ttakuna-errena”, “tukutuna-urguna” edo “bia-pikaztailea/ bata”.

Izen hauek adierazten duten bezala, jole bakoitzak bere funtzioa du. Batek ordena-oreka jartzen du eta besteak lagunak jarritakoa hausten, desordenu-desoreka sortuz. Horrela, joaldian zehar eritmoa egin eta deseginez. Txalaparta tradizionalan gero eta azkarrago jotzen ordena-oreka hautsiezinezko batera iritsi arte.

Ikusten denez, txalaparta tradizionalak baditu jotzeko zenbait arau. Arauok ez dute sormena mugatzen, are gehiago, askatasun handia ematen diete jotzaileei bat-batean joaldiak asmatzeko ahalmena erabil dezaten.

– Soinu-tresna bera: osaketa, itsura eta materialak txalapartari zaharren eskuetan:

Txalapartaren itxura ez da beti eta toki guztietan berdina izan. Txalaparta tradizionalan itxurari buruz, gehien azaltzen zaiguna honakoa da:

Bi euskarri; otarreak edo saskiak ahoz behera jarriak, aulkiak edo bankuak. Hauen gainean, isolatzen duen zerbeit; arto-hostoa (artoria), belar idorra, zaku zaharrak,... Gainean horizontalki jarriak, gutxi gorabehera bi metro luze, hoge zentimetro

zabal eta sei zentimetro lodi den ohol bat. Euskarriak, gutxi gorabehera ohol-muturretik bosten batera kokatzen dira.

Jotzeko lau makila. Hauen luzera eta itxura desberdina izaten da tokiaren arabera: Luzera, Lasarteko Zuaznabartarrenak 52 zentimetro, Astigarragako Goikoetxeatarrenak 60 zentimetro eta Billandegiko baserrietakoak 88 zentimetro. Hiru kasuetan makilak kono-enbor formakoak dira.

“Toberak” izenarekin (toki batzuetan txalaparta izenarekin) ezagutzen den aldaera horretan zurezko oholen orde, altzairuzko palankak kolpeatzen dituzte, makilen orde burniziriak erabiliz.

– Txalapartarekin musika egiteko joera tradizionala: eritmoa egite-desegitea, esaldi eritmikoak, tempo, hotsa edo bolumena, poliritmia eta politonalitatea.

– Jotzeko era eta eritmo tradizionalak: ote-jotzea, kirrikoketa, toberak, txalaparta. Bikoak, hirukoak, lauakoak, seikoak,...

– Txalapartari belaunaldi berrien ekarpenak: materialak, eritmoak, polifoniak, doinuak,...

Txalapartari berriek zura eta altzairuz gain hariak, marmolak eta bestelako materialak erabiltzen dituzte hots tinbrikaren aukera zabalduz.

Gaur egun, betikoak jotzeaz gain, eritmo berriak erabiltzen dira, euskal herri musikatik hartutakoak, bestelako musiketatik hartuak edo asmatutakoak.

Txalapartaren ohol, harri, palankak eta bestelako materialek ematen dituzten aukerak erabiliz, gero eta gehiago erabiltzen dira tonok polifonia eta melodia jojuak egiteko.

– Txalaparta musika taldeetako soinu-tresna: modu horretan zer irabazten duen eta zer galtzen duen. Taldeetan jotzea eta bakarka jotzen jarraitzea, bi joerak mantentzeko komenientzia.

Oiartzun, 2001-11-21